

AKORDIOA, III. SAILKAPEN TALDEKO (Kategoria profesionala: IKTko teknikari espezialista (Aplikazioen Informatika)) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA. DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.

Epaimahai honek hainbat idatzi jaso ditu, argitaratutako galdera zerrendetako hainbat galderaren inguruko akatsen, zalantzen eta desadostasunen berri ematen dutenak.

Era berean, azterketaren nondik norakoei buruzko galderak jaso ditu.

Horiek aztertu ondoren, eta Deialdiaren Oinarri Orokorren zortzigarren eta hamabigarren puntuak eta Oinarri Espezifikoen hirugarren puntuak (biak ere UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan jasotakoak) aurreikusitakoa kontuan hartuta, III. sailkapen taldeko (IKTko teknikari espezialista (Aplikazioen Informatika)) lan kontratudun langile finkoak hartzeko hautapen prozesuaren epaimahaiak honako hau erabaki du:

LEHENA.- Argitaratutako galderen zerrendako hainbat galderen idazkera zuzentzea.

Atal espezifikoa: 75, 348, 392 eta 468.

Behin betiko idazketa erabaki honi eransten zaio.

BIGARRENA.- Hurrengo galdera baliogabetzea:

Atal espezifikoa: 440.

HIRUGARRENA.- Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktikoa.

LAUGARRENA.- Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuak adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikotako bat ebaztea hautatzen duten pertsonen honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute: paperean dagoen materiala eta dokumentazioa, kasu praktikoen ebazteko gidak edo eskuliburuak barnean ez dituztenak.

BOSTGARRENA.- Ez da onartuko telefono mugikorrik edo interneterako konexioa duen edozein gailu elektronikoren erabilera.



SEIGARRENA.- Erabaki hau langileen gerenteordetzari bidaltzea, egoki diren bitartekoez argitaratzeko.

Leioa, 2019ko urriaren 21a

Epäimahaiko idazkaria

Javier Angulo Gento

ANEXO. Preguntas de la parte específica que ven modificada su redacción

EUSKARA	CASTELLANO
<p>75. Bash-en, karaktere hau erabiliko dugu balioa oktal gisa adierazi nahi badugu:</p> <p>a) \nxxx b) \bxxx c) \\xxx d) \0xxx</p>	<p>75. En bash, utilizaremos el siguiente carácter cuando queramos expresar el valor en octal:</p> <p>a) \nxxx b) \bxxx c) \\xxx d) \0xxx</p>
<p>348. Linuxen kontsola batean, zer sinbolo jarriko genuke komandoaren ondoren exekuzioa hasteko eta berehala kontrola guri itzularazteko, amaitu arte itxaron gabe?</p> <p>a) # b) & c) % d) \$</p>	<p>348. En una consola de Linux, ¿qué símbolo pondríamos tras el comando para hacer que comience la ejecución e inmediatamente nos devuelva el control, sin esperar a que acabe?</p> <p>a) # b) & c) % d) \$</p>
<p>392. Linuxeko «chmod 774 archivo.txt» komandoarekin, zer baimen esleitzen zaizkio taldeari archivo.txt fitxategirako?</p> <p>a) Irakurtzeko baimena. b) Irakurtzeko eta idazteko baimena. c) Irakurtzeko eta exekutatzeko baimena. d) Irakurtzeko, idazteko eta exekutatzeko baimena.</p>	<p>392. ¿Qué permisos se están asignando al grupo para el fichero archivo.txt con el siguiente comando Linux «chmod 774 archivo.txt»?</p> <p>a) Lectura. b) Lectura y escritura. c) Lectura y ejecución. d) Lectura, escritura y ejecución.</p>
<p>468. DSL familiako teknologia hauetatik, zein horni daiteke modu simetrikoan edo asimetrikoan?</p> <p>a) VDSL b) HDSL c) SDSL d) ADSL2</p>	<p>468.Cuál de las siguientes tecnologías de la familia DSL, puede suministrarse de forma simétrica o de forma asimétrica:</p> <p>a) VDSL b) HDSL c) SDSL d) ADSL2</p>